

GIPUZKOA

Sagardo txapelketa, gazta edo ganadu lehiaketak aurtengo Santio Egunean

Loiolatxo, Landeta eta Goikabi elkarteek antolatuta, 23 upategi izango dira berrogei ta bigarrena izango den Sagardo lehian. Horrez gainera, txahal errea, gazta edo hegaluzea dastatzeko aukera izan dute herritarrek

ELI AIZPURU AZPEITIA

22 julio 2014
00:10

Santio Eguna arrimatzen ari da eta horrekin batera Baserritarren Eguna ospatzeko azken ukituetan murgilduta daude antolatzaileek. Sagardoa izango da protagonista ostiralean, uztailak 25. Eguerdiko

12etatik aurrera, 23 upategietako zukuak probatzeko aukera izango dute herritarrek eta lehiaketa ere hasiko da. Euskal Herriko Sagardo Txapelketarik zaharrena izanik, asko dira Azpeitian plazaratu nahi duten upategiak baina «inork laga ezean, lekurik ezin egin. Arkupe bakoitzeko sagardo-etxe bat ipini ohi baita», adierazi dute txapelketa antolatzen duten Loiolatxo, Landeta eta Goi-kabi elkarteetako kideek -Udalaren, Añota sagardotegiaren eta Gipuzkoako Sagardogileen Elkartearen babesarekin-.

Bi sagardo lehiaketa egingo dira aurtengoan ere. Ofiziala, batetik, zortzi lagunekoko epaimahaiak emandakoa; eta, bestetik, herriko elkarteek adostutakoa. Antolatzaileek esan dutenez, «aurten ere ez dugu emakumezkorik animatu epaile lanetarako», beraz, deialdia luzatuta dago hurrengo urterako.

3.000 sagardo botila inguru ipiniko dituzte eskura herritarrek edan dezaten eta sagardoa agortu arte edan ahal izago dute, «30.000 trago inguru».

Hiru euroko prezioa izango dute edalontziek. Aurrez edalontzia eskuratuta, nahi adina trago egin ahal izango da. Edariaz gain, jatekoa ere izango da. Hegaluzea edo atuna eta txahal pintxoak eskainiko dituzte, euro eta erdian. Dirua, urtero bezala, misio egitasmoetarako erabiliko da.

Sagardo lehiaketaz gain, XXVI. Gazta txapelketa ere jokatu da eta Idiazabal eta Artzai Gazta izendapenetako jakiak aurkeztuko dituzte Azpeitira hurbilduko diren 26 artzainek. Horrez gainera, bi urtean behin Euskal Herriko Blonda ganadu txapelketa jokatu ohi da Udalak eta Foru Aldundiak antolatuta, eta ostiralean blondek hartuko dute baita ere Azpeitia. 85 buru aurkeztuko dira hamaisegarrena izango den edizio honetara. Euskal Herriko puntu desberdinetako baserritarrek hartuko dute parte, halanola, Aretxabaleta, Markina, Orio edo Gernika. Azpeitiko hiru baserritar ere izango dira tartean etxeko buru onenekin lehian.



Sagardo txapelketako antolatzaileak, Añota sagardotegian egindako aurkezpenean. / E.A.

DIARIOVASCO.COM Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A.

Registro Mercantil de Gipuzkoa, Libro de Sociedades 49, Folio 118, Hoja nº 2.900, Inscripción 1ª C.I.F.: A-20004073 Domicilio social en Camino de Portuete, 2 San Sebastián 20018. Correo electrónico de contacto contactanos@diariovasco.com

Copyright © Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A. Incluye contenidos de la empresa citada, del medio El Diario Vasco (Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A.) , y, en su caso, de otras empresas del grupo de la empresa o de terceros.

EN CUALQUIER CASO TODOS LOS DERECHOS RESERVADOS:

Queda prohibida la reproducción, distribución, puesta a disposición, comunicación pública y utilización total o parcial, de los contenidos de esta web, en cualquier forma o modalidad, sin previa, expresa y escrita autorización, incluyendo, en particular, su mera reproducción y/o puesta a disposición como resúmenes, reseñas o revistas de prensa con fines comerciales o directa o indirectamente lucrativos, a la que se manifiesta oposición expresa.